




ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || X Urtea || 1928'ko Joñaila || 112 Zenbakia || :—

ASTE NAGUSIA



ARIZUMAREN azkeneko asteak izen asko izan ditu kristauen artean. Lateldunak eta gerkeldunak lenengo mendetan «*Aste aundia*», «*Aste santua*», «*Aste neketsua*», «*Aste iluna*», «*Gurutze egunak*», eta... deitu oi zuten.

«*Aste aundia*», ez beste asteak baño egun geiago dituelako, Jainkoak aste onetan gauza aundiak egin zituelako baizik. «*Aste santua*» egun auetan ospatzen diran gertaerak guziz santuak diralako.

Lenengo aldietako kristauak aste onetan izugarizko baraua egin oi zuten: askok ilunabafeko ogia, gatza eta ura besterik etzuten ezer artzen aste guzian; beste askok befiz lenengo sei egunetan ezertxo ere etzuten artzen; eta ofegatik deitu oi zuten «*Aste neketsua*.»

Elizak bere elizkizun liburuetan aste au «*Hebdomada maior*»: *Aste nagusia* deitzen du, aste ontako elizkizunak beste guzietakoak baño nagusiagoak dira ta.

Abar-igandea

Egun onetan Jesus gure Jauna Betanitik Jerusalemara joan zan eta urira ospe aundian sartu zan; eta befiro Betanira itzuli zan.

Zer elizkizun berezi egiten da egun onetan? Egun onetako elizkizun berezia Jesusek Jerusalemen egin zuan safera ospetsuaren oroipenez egiten dan eliz-ingurua da.

Zer adierazi bear digute, kristauak elizara eramaten dituzten, adar eze oiek? Adar eze oiek, Jesus asto gainean juduen uriburura sartu zanean, angoo jendeak Jesusen onetara bota eta bere inguruan eskuetan eraman zituen, olio eta palma adar ezen irudi dira; eta juduak adar oiek eskuetan zituela, Jesusen ondolik joanaz gure Jauna efegetzat goratzen zutela adierazten zuten bezela, kristauak ere egun onetan, adar ezeak eskuetan dituela, gurutzearen ondolik ibiliz, Jesukristo beren efegetzat goratzen dutela adierazten dute.

Zergatik bedeinkatzen dira adar oiek? Elizak bere elizkizunetan auzet bedeinkatu gabeko gauzarik erabiltzen ez tuelako.

Adar bedeinkatuak apaizaren eskutik artzean zer egin bear da? Lenengo apaizaren eskuari eta gero adar bedeinkatuari muñ eman. Adar bedeinkatu ori eliz-ingurua egin bitartean eskuiko eskuan ibili bear da eta Meza Nagusian, Jesusen Nekaldia kantatzen edo irakurtzen dan garaian ere eskuan eduki bear da.

Eliz-ingurua egiten dan garaian elizako ateak itxitzeak eta gurutze-buruz jo eta befiz zabaltzeak zer esan nai du? Gure lenengo gurasoak pekatu egin zutenean zeruko ateak itxi egin zirala eta Jesukistok bere gurutzeaz zabaldu zitula.

Astelen Santu ta Astearte Santu egunetan Jesus Jerusalemera joan zan, eta gauerako befiz Betanira itzuli zan.

Asteazken Santu egun guzian Betanian egon zan Jesus. Juduen apaizburuak Jesus ondatzea erabaki zuten.

Donabereta: Matutinium Tenebrarum (Aizaroa?). Lenengo garaietan gauerdian eta kristau guziak abestu oi zituen eliz-eresi ta otoitzak, orañi auzeko afatsaldean eta apaizak eta elizgizonak bakafik abestu oi ditue.

Apaizak abesten ari diran bitartean, eresi edo *Psalmus* bakoitzaren buruan itzaltzen diran, argi gofi aiek zer esan nai due? Argi gofi aiek, Jesusen Nekaldi garaian, aren ikasle ta apostoloak, Jaunarenganako uste eta maitasunean oztu eta il egin zirala esan nai due.

Eta azkenera arte pizturik irauten duan argi txuri bakafa Andre Mari- ren irudi da eta, Jesus bere etsaien eskuetan ainbesteko nekez beterik ikusi azen, bere Seme eta Jaunarenganako maitetasun sutsua etzitzaiola batere epeldu eta, naiz onazerik gofien en drian il, befiz ez iltzeko piztuko zan ustea etzuela galdu adierazten digu.

Baita ere argizai txuri ura Jesus beraren irudi da: Bere etsai gaiztoak, gurutzean il zan ezker, aren aztarna guziak ufatu zituela uste zuen; baño Jesus piztu egin zan eta gauza guziak bere araura befitu egin zitun; ofegatik argi txuria itzali gabe izkutatu eta befiro agertzen da.

Azkenean egiten dan ilunpe eta dinbi-danbako arek Jesus il zaneke lur- ikara eta iluna adierazten du.

Garizumako bostgafen igande auzeko larunbata ezker, elizak beltzez jantzirik daude, santuen irudi guziak estalirik eta alde guzietan iluntasuna

ta naigabea besterik eztala ikusten ematen du. Baño azkeneko egun auztan iluntasun ori aundiagotzen da eta Elizak beste gauza guziaz azturik, gizonen gaiztakeriak eta Jesusen neke eta eriotzaz gogoeta egiteak ekañ dion



Agur, Gurutze Santua!

naigabea, iluntasuna eta samintasuna bere semeai adierazten du bere ardura guzia.

Ostegun santua.

Egun onetan Jesus gure Jaunak bere azken aparria egin zuan, bere ikasleai oñak garbitu zizkien, Eukaristia erakutsi zuan, lenengo apaizak egin zitun; eta Jetsemaniko baratzara otoitz egitera joan zan. Judasek bere salke-

ria egin zuan eta Jesus Anas eta Kaipasen etxera eramana izan zan. Pedro ikasleak gaur gauean bere jainkozko Irakaslea iru aldiz ukatu zuan.

Egun onetan, batez ere Meza Nagusian, Jesukristok Eukaristia era-kutsi eta lenengo apaizak egin zituen azken aparta gogoratzen digu Eliz Amak.

Gaurko Meza Nagusian apaizak bi osti *konsagratzen* ditu: bat, bes-tetan bezela, berak artzen du eta bestea biarko jasotzen da.

Oroipen-etxea zer da? Ostegun santuan gure Jauna edukitzeko elize-tan jasotzen dan ooltza edo jaun-alkiak deritza *oroipen-etxea*.

Eta oroipen-etxe ofek zer esan nai du? Oroipen-etxe ori Jesusen ilobia-ren irudi da eta, batez ere, gure Jaunak bere azken apartan bere burua gu-re onerako, ogi eta ardo antzpean utzi zigunaren oroigafitzat jasotzen da.

Zergatik erantzitzen dira meza-maiak ostegun santu egunean? Jesu-kristo bere Nekaldian biluzi egin zutela eta bere soñekoak zatitu eta txotx egin zituela adierazteko.

Zergatik ez dira jotzen elizako ezkiā, txintxin eta elizsoñuak ostegun santutik larunbata arte? Jesusen nekaldi eta eriotzak Elizari ekafi dion atse-kabe eta iluntasuna adierazteagatik; baita ere lenengo kristauen arteko oi-tura gogoratzeagatik. Lenengo kristauen artean etzan elizatan ezkiā eta txintxiñik, eta kristauai oltxo batzuek joaz deitu oi zitzaien elizkizunetara.

Ostegun santuko beste eginkizun bat oñak *garbitzea* da. Jesusek bere ikasleai oñak garbitu zizkien oroipenez, eliz-buruak beren elizetan eta aun-dizki askok beren etxetan oñak garbitu oi dizkie amairu aufei edo amairu beartsui.

Urte bafuan erabili bear diran olio santuak egun onetan onetsitzen di-tue Gotzai jaunak beren eliznagusietan.

Ostiral santua.

Goizean juduen apaizak Jesus Pilatoren eta Eroderen etxera eraman zuten eta befiro Pilatorenera itzuli zuten. Gogorki zigortu eta arantzazko koroia jantzi zioten eta amafak aldean eriotzarako erabakia eman zioten. Amaikak ondoan Kalbariorako bideari lotu zitzaion. Amabietan gurutzean josi zuten eta iruetan il zan; eta ilunabafean eortzi edo obiratu zuten.

Gure Eliz Ama Santuak Jesus gurutzetua ipintzen digu gaur gure be-gien aufean, bere neke-oñazeak ikusirik gure Jauna efuki dezagun, eta gu-re Jainkoa ofela il duten gure gaiztakeriaz damuturik, aren piztueraren on-doren bikañak artzeko gai izan gaitezen.

Gaurko elizkizunetan lenengo gure Jaunaren Nekaldia irakurtzen da Joanes deunaren arauz. Ondoren, Jesus gizon guzien onerako il zan da, Eli-zak gizon guzien alde otoitz egiten du, otoitz bakoitzaren aufetik belauni-katzen dalarik.

Juduen alde otoitz egitekoan ezta belaunikatzen, aiek gure Jaunari egun onetan egin zizkioten ifi eta belaunikatze ifizkoakgatik.

Gero gurutzeari gaiñeko zapi ubela kentzerakoan, elizan arkitzen diran, kristau guziak gure Jauna iru aldiz jauresten dute, iru aldiz belaunikatzen

diralarik; eta gero guziak, banan, apaiz buruagandik asita, Gurutzearen aurrean belaunikatu eta muñ ematen diote gure Jaunaren irudi agurgafiari.

Larunbata santua.

Jesus ilobian. Andre Mariren bakartasun samia.

Kristauen lenengo garaietan etzan mezarik ematen egun onetan; eta, garai artan gauerdian egiten ziran, Jesusen piztuerazko elizkizunak orain larunbata goizean egiten dira. Lenago elizkizun oiek larunbata afatsaldeko iruetan asi eta igande goizeko Meza nagusiaz bukatzen ziran; eta kristau guziak joan oi ziran elizkizun oietara.

Su beriak zer esan nai du? Su beia Jesusen piztueraren irudi da. Eta makila buruan ipintzen diran *iru argi aiek* Jainkoaren irutasuna adierazten digute; eta meza-afi nagusiaren eskuialdean ipintzen dan *pazko-argizaia* ere Jesus piztuaren irudi da. Ofegatik Jesusen piztueraren irudiz larunbata santu goizean lenengo aldiz piztu eta Jaunaren zeruetara igotze egunean Meza nagusian, ebanjelio ondoan, itzaltzen da, geiago ez piztutzeko. Argizai ofi gurutze antzean ezartzen zaskion bost *intzentsu-aleak* Jesus gure Jaunaren bost zaurien irudi dira.

Larunbata santuko Meza nagusian asita, ainbeste bider esaten dan *Alleluia* itzak zer esan nai du? Itz ori ibereratikoa da eta «*Jainkoa goratu ezazue* edo *Gora Jainkoa*» esan nai du.

Gaur arte Eliza beltzez jantzita zego; baina gaur soñeko beltzak erantzi eta zuriz jantzi da; eta, bere Senar garbia, gure Jaun eta Jabea ilen artetik piztu dalako eta bere piztueraz bere etsai guziak garaitu ditulako, pozez bete da, eta gu ere poztu gaitzela esaten digu bere seme-alaba guzoi.

Lenagoko garaietan Pazkoa egun sentian, kristauak, gau-otoitzak asi baina len, elkafi musu eman oi zioten, «*Surrexit Dominus: Jauna piztu da*» esanaz.

Pizkunde igandea.

Gaur egunez, goiz-goizean, Jesus gure Zeruratzalea ilen artetik piztu zan, bere ilobiaren begira zeuden, gizonak itxuturik uzten zituelarik bere argi aundiaz.

Gaurko jaia «*Solemnitas solemnitarum: jairik nagusiena*» deitzen du Elizak.


Ijitoafen mofontza gogofetik atera zituaren oroigafitzat jai aundia egiteko agindu zien Jainkoak Israeldafai, eta beren jairik nagusiena Pazkoa zan. Jesukristo gure jaunak, gurutzean il eta beiz piztu zalarik, gizonen mendekoa baina askoz ere lotsagafiagoa dan, etsaiaren mofontzatik atera gaitu eta ofegatik bide aundiagoa degu kristauak egun au ospatzeko.

Lenago Pazkoa ondoko aste guzian jai osoa egiten zuten kristauak. Eta gaur egunean ere Elizak aste guzian Jesukristoren piztuera zorionekoa ospatzen du Mezakoan eta bere Otoitzetan.

«*Surrexit Dominus de sepulcro. Alleluia! Jauna piztu da ilobitik. Gora Jaungoikoa!*»

Ataungo Bonifazio Aita. O. S. F. C.

Doloretako Ama Birjiña



¿Nun ote da nere alaba txikiya?

ERTATUA da, gertaera afigafiya emen idaztera noana.

Askotan entzun degu Ama Birjiñaren erukitasuna aundiya dala eta ziñez, egiya da: irakufi zazute.

Lafi, estutua, zebilen ama bat, bere alaba gaztiena, bost urteko nexka txiki bat, bere lagunakin jostatzera joan, eta gaueko ilun orduetan etxean azaltzen etzalako.

Lore bila joan ziran gazte ayek, baño ufuti, beren gnrasoak artuko zuten naigabeaz ezer oartu gabe.

Iluntzen asi zanean, jayen bildufa! laxterka azi ziran etxerontz, baño gaztiena, bost urteko nexka txiki ura atzetik gelditzen zan ezin jafaituaz, negafez, ojuka beren lagunei esanaz: «Atozte, nexkak, ez ninteke ibili, itxoin zazute, hanoa.» Baño ezin jafaitu ta bakar bakañik gelditzen zan baso erdian; bere itzak, bere kafaxiak ta bere ojuak etzitun iñork entzuten.

¡Bere amaren naigabea! ikusi zuanian gauean bere lagunak etofita, etzala bere alabatxoa agiri! Bere burua galtzeko zorian zirudien!

Efiko gizonak, berialaxe atera ziran nexka gaxoaren bila, ta alde bate tik bestera lafi ibili afen, alpefik! etzuten arkitu.

Bere Ama bitartian, negafez urturik, bertako Doloretako Birjiñaren elizara joan zan eta belaunikaturik bere aldare aufean esaten zion: «¡Ene Ama! efuki zaitez nere alabatxoaz, galdu egin det, ilko nintzake nere maite ori galdinako balitz; nere eskuetara ekafiko al dezu befiz?

Zuk ere, Ama, galdu ziñun zure Seme Jesus; badakizu bada, nolako min aundiya izango dan neria. ¡Afen, arindu zazu bada nere biyotza!» Olako otoitz xamur oyetan elizan egonta etxeratu zanian, azaldu zitzaion bat batian bere alabatxo maitea. ¡Aien poza, aien besarkadak!!

«¿Nondik zatoz maitia? zeñek ekañi zaitu neregana? nun ziñan, nere alabatxo maitea?»

Ta nexka gazte afek erantzun zion, pozez beterik bere amaren arpegiya befiz ikusten zuala siñistu gabe:

«Ama, galdua negoan, bakar bakafik baso erdian, nere lagunak iges egin zuten, ta negahez ta ojuka nengoala, Andre eder bat etofi zitzaidan, ta eskutik artuta etxera ekafi ninduan! nere poza! zein edefa zan Andre ura, zein maitagafial!»

Ezin asmatu zuten zein ote zan nexka afek ziyon Andre ura, etzan inun ere arkitzen, baño ufengo egulnean, ama bere alabatxo eta senide guziakin elizara joan zan, Ama Birjiñari biyotzeko eskefak ematera.

Elizan, efiko jende asko bildu zan, baztar guzietan befiya zabaldu zalako, ta elizan sartu orduko, nexka txiki afek Doloretako Ama Birjiña ikusi bezin laxter, ojuka asi zan esanaz:

«Ama, ama, begira, ori da ori da, atzo etxera ekafi ninduan Andrea. bai, bai, ori da, zein edefa!»



Ama Gaixoa!

Ta efiko jendea arituta gelditu zan nexka txiki afek esaten zuanaz, ta guziak belauniko jarita Doloretako Ama Birjiñari eskefak eman zizkioten alako mirari aundiyaz.

Bai edefa dala gertaera ori. Zuen animak galduak ta Jesusengandik uruti badira, zergatik etzerate negahez Andre ofengana joaten, eskutik artuta Jaungoikoarengana itzuli ditzan?

Donostiar Gabriel A.



Zeruko Amari

Donosti'ar J. And. A'h. egiña

Denak

Andante

Ze - ru - ko A - - ma go-zo ez - - ti, gu - - re o -

(1)(2)

Batek

toi-tza en-tzun be - - ti. Gu-ziz e - de - ra ze - ra, A-ma maite-

a, Gu - ziz e - der, gar - bi - - a, ku - tsu ga - be - - - a;

Jain - ko - a be - ra zo - ra - tu - rik e - ka - - fi de - zu lu - fe - - - - ra.

Zeruko Amari

*Zeruko Ama
gozo ezti,
gure otoitza
entzun beti.*

I—Guziz edera zera,
Ama maitea,
guziz eder garbia,
kutsugabea;
Jainkoa bera
zoraturik ekañi
dezu luferra.

II—Egunaren aufeko
egunsentia,
pozkidaz bete dezu
mundu guzia;
Zuk sortu dezu
Jesus gure egiazko
goi-eguzkia.

III—Loretan politena
Lili txuria;
andretan edefena,
zu, oi Maria;
Ama Birjiña,
zu gizon ta aingeruen
poz-atsegiña.

IV—Zuk arintzen dituzu
gure nekeak,
zuk eztitzen gure min
ta atsekabeak;
gure zauriak
zuk sendatzen dituzu
ta gaitz guziak.



I

Edefa ziñan, Jesus maitea,
Gizon guzien artean;
Zure arpegi zuri-gofiak
Berdinik etzun lufean.

Zure burua, ufe gofia;
Zure ileak, bel-beltzak,
Zure begiak, usoarenak;
Zure masalak, loreak.

Zure ezpainenak, lili gozoak;
Zure eskuak, bitxiak;
Zure belaunak, ari zuriak,
Ufe gainean jariak.

Guzia ziñan zoragaria,
Zeruko Bildots otzana;
Guzia ziñan maitagaria,
Nere Jaungoiko lastana.

II

Nola beztu dan ufe gofia,
Ikatz biurtu elur!a!
Inortxok ere eztu ezagutzen
Galdu dulakoz itxura.


Bere begiak ilundu dira,
igartu bere masalak.
Ez dute orain edertasunik
Aren ile ta ezpainenak.

Guziak dute oiñazpiratzen,
Xomofo txar bat bezela.
Gure obenak, gaiztakeriak,
Ezafi dute ofela.

Urtu zaitezte, nere begiak;
Uratu, nere biotza.
Nor ez kupitu, ikusirikan
Jesus maitea ilotza?

Sabiaga.

KALBARIO MENDIAN



Igo gaitezen Golgota mendira.

¿Zer ikusten dute gure begiak? Alde batetik Jaungoiko bateneramanpen neufi gabea, bestetik gizonen eskergabekeri beltza.

Ainbeste urtez Mesias zai egon diren judutafak, ¿zer eskeñi diote noizbait zerutik jetxi dan Mesiasi? ¡Gaizkilerik gaizkilena lotsatzen duen gurutze bat!.. Odolez begiak gofituta dituzten gizon biotz gabe ba-

tzuek *Jainko-Gizonaren* esku-oñak iltze gogofez josten dituzte... Golgotaren maldak estaltzen dituen gizozte zitalaren iji-aja tartean altxatzen da gorputzik edefena, zauri ta odolez zikindua; arantza zofoztak inguratzen diote burua, eta buru gaiñean, gurutzeari ezafi dioten paper batean irakurtzen da: «*Jesus Nazarenus Rex Iudaeorum; Jesus Nazarethekoa, Juduen Efegea*».

¡Eta Jesus Efege da...! ez bakafik judueng, baita ere zeru-lufekoa. Eta Efege ori iltzera dijoa...

Aingeruen Efegea iltzera; ta aingeruak ixil-ixilik beren ezpata zofozt disditsariak agertu gabe...

Gizadiaren Efegea iltzera ta gizonak befiz Luzbelek bururatzen dizkien amets itxusien atzetik...

Zuzentasun utsa dan Jaungoiko berak, Seme maitea eriotzara daramaten gizonai ez die agertzen bere asefe bizia...

¡Inñor ere ez Jesusen alde! Oi! ta bitartean inpernuko indafak txaloka afokeriz mozkorturik... «*Hæc est hora vestra et potestas tenebrarum!*... Inpernutafak, orain da zuen ordua!

Baiño ixildu zaitezte etsai zitalok! Ez jo txalorik!

¿Ez alzerate oartzen Nazaretheko Jesus, gertu diozuten gurutze ortan il da, betiko zuen garaile gelditzen dela? ¿Ezaldakizute oraindafiño lotsagafi izan dan gurutze ori gaurgero zeruko giltza izango dela? Ezaldakizute Jesusen eriotza ainbeste ta ainbesteenzat bizitza izango dela? ¡*Oh mors unde mortui reviviscunt!*...

Bai, Jesus garaile, zeru-lufen Jaun ta Jabe gelditzen da. Bizi geran ludi au odei ta laño inguraturik dagonean, eguzki dizdiratsua bere argia nonai zabaltzen ez degu ikusten, baiño naiz lufean, naiz landaretan, naiz gure buruan berak dakarzkigun onurak ederki susmatzen ditugu; era berean Je-

susek, bakafik, gizonik aulen ta gaizkileenaren eran gurutze batean ematen du bizia, baño dakusgun gorputz ofen batenen Jaungoiko bat dago, eriotza ta inpernuko indafak betirako ondatu dituen Jaungoikoa.

¿Eta Jesusek ze bideari egin dio, gizonen etsaiak ofela azpiratzeko? Paulo Santuak argi ta garbi esaten digu: *Factus est obediens usque ad mortem, mortem autem Crucis!* Il arte, eta gurutze batean il arte bere naia Aitaren mendean utzita.

Menpetasuna degu bada onbideetan lenengoa; beste onbide guziak, Jesusek bere bizitza guzian eta batez ere Golgota gañean erakusten digunez, onbide ofen ondolik datoz. Afokeriak infernuru zituen bein Luzbel eta bere aingeruak, Jesusen menpetasunak befiz zenbatu ezin diteken gizataldea zeruratu du.

Egun aurtan, Jesus gurutzean josia iltzen dakusgun bakoitzean, asmo sendo au artu bear degu: *Jaungoiko ta bere Elizaren aginduak ondo betetzea.*

Ainbeste gizon afok Elizaren uztafi ariña astintzeko egiñalak egiten dituzten ordu auetan, asmo ori beafezkoa degu.

Intzar Lorenzo A.

Bide-ertzeko gurutzea

Ain maite nuan aiskide baten zorigaiztoko eriotz latza adirazten dit sasi-ondoan tente dakustan gurutze beltzak. Egun iluntsu tamalgafia oroitzen dit, bai, gurutze itzalak ita au ikustean ezin aztu ba ne-aiskidea emen il zala...! Ta gaizkatzeko sendagai gabe ilunki il zala gogoratzean izugafizko gezal mingotsa befiz sortzen zait ne-biotzean. Lar zakafaren arba zofotzak zerbait estali du gurutzea baña besoak soil dauzka, izge otoi eskaka lafi antzean. Bide-ertzeko lafondo lazko gurutze beltza ta zut-zutia ikuste utsaz otzikara bat jabetzen zait soin ergel guziaz. Ikarati dan biotz motel au berotutzeko al dan laisteren sendagaietan ezuskofena otoi gartsua zait iruditzen. Ta alaxe gartsu asi orduko otoi beroa bere alboan

ikara gabe gurutze beltza besarkatu det laztan gozoaz. Ni aienduta berealaxe bi txori polit gurutz-gañera eldu dira ta... jankertzar batek izkiluz bota ditu luferal Sasi-ufeko gurutz gañean samur abesten zeuden bi txori igige..., ilak utzi dizkigu... ankertzar afek ez du biotzik...!! Nerea beintzat biozgekeriz erdibitu du naigabe miñaz eun beltz artan lez bide bazter au busti araziz malko samiñaz. Gurutze beltza lafak artua..., bi txoritxo ilak bere ofnean..., beazunetan igeri daukat nere biotza une onetan. Egun iluntsu tamalgafia oroitzen dit, bai, gurutze itzalak ta au ikustean ezin aztu nik aiskide ura emen il zala...; bere aldeko nere otoiartzak afen, Goikoak entzun ditzala...!

Zubigar


Ikasi..! Ikasi..!




I.—Txinako gure misioetan;
Kan-tso-lin mutiko txintxoaren,
Aita Andresen mandatu geienak
Berak xuxen egiten zituen.



II.—«Begira or Jesus gurutzean:
Esku-ona iltzaturik dauzka;
Etsai asko ditu Jesus onak,
Etsai oiek jafi dute ola.»



III.—Gurutze afean belaniko
Kan-tso-lin Jesusekin izketan:
«Jesus! etsai asko dituzula?
Nik ilko ditut guziak bertan.»



V.—«Ora or bat gurutze ondoan;
Ago, ago soldadu gaizto ori!
Oraitxe ilko aut pikotx onekin;
Zer gaitz egin dik Jesusek iri?»



V.—«Aita, Jesusen etsai bat il det»—
—«Jesusen etsai bat... Zer diok or»
—Bai, Aita, bai—Non ala?—Elizan.
—Zer egin dek, motel?—Aita, betor.



VI.—Sartu dira biak elizara;
Gure Aita Andresen arifena!
Aur euskaldunak, ikasi, ikasi
Mutiko auren fede bizia.



Txina'ko berriak

Oyartzuar Jose M. Abari

(Azkena)

Muskaria'n.

Denporaldi guzi onetan Nordistak asko irabazi dute, ondo batu-rik daudelako ta ola asko jetxi dira Ego aldera, eri ta lur guzien ja-be egiñik. Nordistaen buruen artean, Yan-tso-lhin da indar geyen daukana ta Yan-tso-lhin onek gaur beintzat ez ditu gaizki ikusten misio-lariak. Umezurtzetxe batean monjak azia, gero aundiago egiñik, mendietan agertzen diran lapur'ikaragarietako bat egin zan. Lapurketan zebilen batean, zauriturik erori zan ta orduan ere, doi-doi bere oñez, misio batera eldu zan ta beriz monjaen esku biguña ta onuratsua be-regan ezagutu zuan. Monja batek sendatu zion oso ederki zauria ta orduezkeroztik bere egunean monja areri opari eder-ederia bialtzen dio. Ofegatik uste degu, ta uste dute emengo misiolariak, Yan-tso-lhin'ek beti pakean utziko gai'uela.

Txina guzia, batez ere egoaldea, oso nasturik dago ta ez daiteke asmatu ere, noiz izango dan emengo nasketaen azkera. Buruak edo je-neralak gutxien uste danean, sortzen dira alderdi batean berez beze-la, Oyartzun'go mendietan peretxikoak sortzen diran bezela. Eta ola leku batean guda bukatu dala uste danean, bear bada beste jeneral bat agertzen da ta ora beriz guda. Jeneral oiek geienak ez dute bat ere kañerarik eta estudiorik. Bakar-bakarik dira buru ona duten gizo-nak ta txinoen eri batzuen jabe egin diranak ta beren eskupeko jen-deakin jaikitzen dira ta al duten erietaz jabetu. Alde batetik nasketa oiek guziz onuratsuak izan dira misiolari katolikoentzat. Zergatik? Gudagatik, misiolari protestanteak baztertu ziran beren lekuetatik ta orela misiolari katolikoak etzuten lan egiteko etsairik. Ez nuan uste izango bein ere, ainbeste ta ainbeste protestante izango ziralta Txina'ra etorita. Asko dira ta ez bakarik gizonak; bear bada geiago dira

emakumeak. Kansu'n bertan gure ta Verbi Divini'koen misioan badira 80 (larogei) misiolari protestante aleman eta yankitar. Yankitarak alemanak baño askoz obeak dira ta ez da aritzekoa: yankitarak len etziran kristotarak ta orain kristotar egiñik, gure erlijiora urbildu egin dira. Alemandarak beriz len katolikoak ziran eta protestanteak egiñik, kristotarak badira ere, guregandik urundu egin ziran ta oregatik oso gaizki ikusten gaituzte ta amoru aundia digute, nik uste dedanez beintzat. Yankitarak zintzoagoak eta erlijiosoagoak dira. Gurekin batez ontzian Yan-tse-kiang ibaian lau edo bost misiolari protestante zetozen; yankitarak ziran eta oso ondo portatzen ziran; bazkal aurrean eta ondoan debozio aundiz erezatu egiten zuten. Bear bada, fede on-onez bizi dira. Beste protestante alemandar bat ere ordea etori zan gurekin Genova'tik Shangairano ta arek etzuan ejemplu ona ematen: neskazalea, aantzara ere ioan zan noizpait bein baño geiagotan, jende guzien aurrean ere bañoa artzen zuan, erezatzen ere ez genuan bein ere ikusten, ta ola. Bear bada Alemaniko protestante misiolariak ere ez dira orekoak izango guziak; baño emengo beste misiolari batzuek ere esan digute, alemandarak txaragoak dirala.

Gure Kansu'n lapur asko ibiltzen dira, beste Txina'ko alderdi guzietan bezela. Besterik ez dagola uste degu. Joanaldia daukagu txarrena ta bildurgarrena. Baña, J. I. uste degu ondo egingo degula gure joanaldia, piska bat neketsua izaten bazaigu ere.

Gaierakoan oso pozik ta ondo gabiltz, beti umore on-onakin; baita ere gauza ederak ta ikusgarriak ikusten ta ezagutzen.

Noizpait Euskaleriko min piska bat.....

Oraingoz naiko dala deritzait ta beste gauza batzuek besterako uztenditut sakelean. Bitartean otoitz bat eskatzen dizu beti zurea dan

Yufe'tar Julian A. O. M. Cap.

Hankow 1927- Urila - 26'an.

Mis. Ap.

Noizpait ere, bost ilabete-ta-erdiko bidea egin ondoan, erditxi dira Kansu'ra, gure Misiotegira gure Misiolari azkafak.

Agoñilaren (Agostuaren) 22'an abiatu ziran itsasoz Genova'tik lau lagun; Villava'ko Tarsizio A., Yufe'ko Julian A., Bargota'ko Fulgenzio A. eta Guli'ko Rafael A. Gero Shanghai'en batu zitzaizen boskafen laguna, Bilbao'ko Simon A., orain arte Ameriketan zegoena.

Txina pakean egon balitz, bide laburagoa zuten; baño ango gudu eta naspilak dirala ta, bide luzeagoa artu bear izan dute, mangunada aundia egiñez. Eta bestenaz burni-bidez egin zezaketena orain ibaiez (ugaldez) txalupa txar batzuetan egin bear izan dute.

Otsailaren lenbiziko egunetan erditxi dira beren elburura, Kansura, osasun onean, diotenez. Beren bide luzean nekea franko ikusi bear izan dute, bai estualdi ta galbide aundietan arkitu ere. Bereziki bein batez lapufak beren txalupara sartu ta soldaduekin tiroaldi gaitza izan omen zuten, eta orduan aietako bat ere ez iltzea eta ez min-artzea, mirarizko gauza omen da. Nabari da Jainkoak lagundu diela, ta beren Aingeru Zaintzaleak erne egon dirala, aiek galtzen ez uzteko.

Yufe'ko Julian A. Euskaldun garbi ta Euskal-idazle txukunak agindu digu laster bidaliko digula beren bidaldi ortan gertatu zaienaren befi xe-xea, *Zeruko Argian* ateratzeko. Ofela ikasiko dute emengo Enskaldunak zer lan ta nekeak ikusi bear dituzten gure Misiolari azkafak ufutiko lufalde aietan, eta aiei aleginean laguntzera befotuko dira.

Yufe'ko Julian maite, emen gure lagun izandako oferi eskefak ematen dizkiogu aufetik bere eskeñiaz; eta Jainkoak diela, berari ta bere lagunai, aufera ere beldufik gabe Kristoren fedea zabaltzen lan egiteko grazia, in-dafa ta osasuna.

Iñen saila



—Eibar'en, Otsailaren 15'an, Eleizako laguntza ta Aita Santuaren bendizioarekin il zan *Antonio Ezenaro*.

Bizitzaren antzera txit ona izan zan bere eriotza. Jaungoikoak emandako sendi ugariak eskatzen zituan lan eta estualdiak, kristau zintzo eta ardurara aundikoaren egintza Jaungoikozkoakin edertu-eta bikainduak eman zituan bizitza guzian. Eleizkoya beti izan zan. Aizkeneko gaitzean, bere afiskua ezagutzean, berak eskatuaz, Eleizakoak artu eta prestatu zan Jaungoikoagana joateko. Blas Santuaren egunean, Santu oni zion maitasunagatik eta egun ori bere seme maite Kan-su (Txina)'ko Misiolari Kaputxino, Lizartza'tar Andres A'ren (Isidoro Ezenarro Goenaga) jayotzako urtebetetzea zalako, Jauna artu zuan befiro. Ondorengo egunetan bere atsegin guztia Apaiz J. bere ondoan ikusi eta bere Jaungoikozko itzak entzutea izan zan. Bere naia Jaungoikoarenakin oso batua zegoen eta ofela il zan oso etsia, berak bere iletak nola egin erabakiaz eta bere semeai aizken-erakuste onak emanaz.

—Andoain'en, Ilbeltzaren 10'an, Elizako guziak berrik eta berak il baño lenago S. Frantziskoren il-jantzia eskatuz, il zan *Zeruko Argia*'ren irakurle zan *Jose Maria Altube*.

—Erederin, *Bizente Gaztelumendi*, gure aldizkari onen irakurlea.

—Ormaiztegin, *Ramon Murua* ta *Narziso Zangitu*.

—Lazkano'n, Otsailaren 1'an, *Jazinto Urdangarin*, *Zeruko Argia*'ren arpidedun Manuel'en aita.

—Lazkano'n, Otsailaren 15'an *Martin Antonio Izagire*, gure arpidedun Julian'en aita.

Guzi oien etxekoai ta aideai gure atsekabea erakusten diegu, ta «*Zeruko Argiaren*» irakurle guziai otoitz bana eskatzen diegu oien animen alde.

Betiko atsedena ematezu, Jauna;

Ta betiko argiak argi bitza.